

ARRANTZALEA

Madu ontzidunaren txalupa geldi dago aspalditik Rangun'go kaian, yute-zama banandu barik. Madu'k akuran edo alogerezt itxiko ba'leust bera, eun arraun eta bost edo sei aize-oial ipiñiko neuskioz, eta neuk erango neunke oso eratsu. Ez neunke, baiña, itxas-egingo azoka txaldan orreitara, zazpi itxaoak eta maitagarrien eskualdeko amairu ibaiak zearkatu ta igaro baiño!

Alan be zuk, ama, ez dozu bazter orretan nigaitik negar egingo, ezta alan? Ez naz gero izango Ramatxandra lez; arek bada, baina ora joanda, amalau urte egin ebazan etxera zultzen! Ni ipuiñeko erregegai izango naitzazu; atsegin yatazan gauzaz ontzia beteko dot, eta adiskide Asu be neugaz daroaket bertan! Eta kanta-kantari zearkatuko doguz zazpi itxasoak eta maitagarrien eskualdeko amairu ibaiak!

Goiz-goizetik, egun-sentian, itxasoratuko gara. Eguerdirako, barriz, zu aintziran busaldia artzen zagozaneko, gu Errege ez-ezarenaren lurraldera elduak gara aurki. Gero,

Tirpurni'ko itxas-adarrari ikutuz, Tepaniko
ko basamortua atzean itxiko dogu. Gu etxe
ra biurtu orduko illundua dagoke. Eta gu
ikusia oro edestuko dautzut! Eta zazpi itx
soak eta maitagarrien eskualdeko amaie
ibaiak zearkatuko ditut!

R. TAGORE